

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?



Herri Ametsa
Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

ASTEKARIA: 45. atala

DATA: 2025/09/19

GUREAN

EUSKARAZ BLAI!

Ikasturte berriari hasiera eman diogu eta gure altxor nagusienetarikoa bati egurra ematen hasi gara. Aste honetan, Euskaraz Blai! proiektuaren harira, LHn hainbat ekintza antolatu ditugu, antzararen jokoa eta Suno aplikazioarekin gelako abestiak sortzea, besteak beste. Horrez gain, DBHn DET taldea osatu dugu eta euskara lau haizetara zabaltzeko prest daude. Euskaraz bizitzeko grina gero eta indartsu eta handiagoa dugu eta gero eta proiektu gehiagorekin mahai gainean. Euskoliderrak ere hasi dira lanean. Euskaraz bizi nahi dugu eta helburua lortzeko ahalegin handia egingo dugu. Egin bat gurekin!



GURE INGURUAN

PORRONTXO JAIK

NOIZ: IRAILAK 15TIK 23RA ARTE



Astelehenetik igandera jaiak dira Egia auzoan. Egutegi zabala eskaintzen digute aurten ere. Gaur haur, gazte eta beterenoen eguna ospatuko da eta asteburuan, elkartasun eguna eta euskal jaiak. Haurren afari-meriendak, kontzertuak, Djak, zezensuzkoa, danborrada eta hainbat sorpresa aurkituko dituzue Egiara hurbiltzen baldin bazarete.

EGITARAUA:



ZER PROPASATZEN DUZU?

Hemendik aurrera hauxe izango da zuen txokoa. Familia, ikasle, irakasle eta langile guztiek hartu dezakete parte astekarian. Edozein abisu, iragarki, proposamen, plan guri helarazi eta astekarian argitaratuko dugu. Denon artean bizirik mantenduko dugu proiektua!



**ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:**
melvira@herriametsa.eus